

ANIMAZIO SOZIOKOMUNITARIOA

Irakaslea: Kontxesi Berrio-Otxoa

Ikasgaia: Gizarte eta komunitate animazioa

Ikasturtea: 2018-2019



Garazi Ojanguren Cajaraville

AURKIBIDEA

1. Sarrera	3.orr
2. Animazio soziokomunitarioa teorikoki testuinguratzen	3.orr
a. Jatorria	3.orr
b. Definizioak	6.orr
c. Ezaugarriak eta baloreak	9.orr
d. Dimentsioak	11.orr
e. Beste diziplinekin lotura	12.orr
f. Animazio soziokomunitariorako jardunbideak	13.orr
3. Animazio soziokomunitarioaren funtzioak eta profesionalen ezaugarriak	17.orr
4- Bi adibideren deskribapena	19.orr
a. Bizilagunak egitasmoa	19.orr
b. “Animabarrios” proiektua	21.orr
5- Ikasgelako ekintzak	22.orr
a. Euskaraldia	22.orr
b. Tertulia dialogikoa	24.orr
c. Boluntariotzaren sustapena Bizipoza elkartearen eskutik	24.orr
d. Word Kafea	26.orr
6- Gogoeta	27.orr
7- Bibliografia	29.orr

1- Sarrera

Hurrengo lerroetan, Animazio soziokomunitarioaren inguruko dossier bat burutu da, kontzeptuaren inguruko ezagutza eta hausnarketa sakon bat aurrera eramateko asmoz. Dossier hau, edukien araberako atal ezberdinetan bereizi da, informazioa modu batean edo bestean sailkatu nahian. Hasieran, jatorria eta definizio ezberdinak landu dira eta honekin batera, ezaugarriak, baloreak, dimentsioak eta bestelako hainbat arlo ere landu dira lerroetan zehar. Behin alde teorikoena burututa, alde praktikora egiten da salto, adibide praktikoak eta ikasgelan burutako ekintzak azalduz. Amaitzeko hausnarketarako tarte ere gorde da, lehenago aipatu bezala.

Ikasgelan aurrera eraman ditugun Animazio soziokomunitarioko ekintza ezberdinek, teorikoki ikusi dugun guztia beste modu batean ikustea ahalbidetu digute eta ekintza bat lehenengo pertsonan bizitzea ere bai. Horrela, norbere hausnarketa edo gogoeta bat jasotzea errazagoa izan delarik.

Dossier hau, ikasturtean zehar ikasgelan landu eta ezagututako autore ezberdinen lanen bitartez sortu da hein handi batean, baina bestelako egileen edukiez ere aberastu nahi izan da lana, informazio sorta bat lortuz. Autore ezberdinen lanek, iritzi eta pentsamenduen kontrastea egitea ahalbidetu du eta baita norbere iritzia garatzea ere bai.

Esan beharra dago, Animazio soziokomunitario kontzeptua laburtzeko, ASK deritzon txikigarria erabili dela hurrengo lerroetan zehar.

2- Animazio soziokomunitarioa teorikoki testuinguratzen

Aztergai dugun Animazio soziokomunitarioa sakon ezagutzeko, beharrezkoa da lehenik oinarri teoriko batzuk eskuragai edukitzea, gure aztergaia osatzen duten arlo edo adar ezberdinak zeintzuk diren ikusiz. Horregatik, lehenengo atal honetan, autore ezberdinen eskutik lortutako informazioa landuko da, Animazio soziokomunitarioaren jatorri, definizio eta beste hainbat aspektu bilduz bertan. Gainera, animatzaile edo profesionalaren lana ere aztertuko da aipatutako aspektuekin batera, Animazio soziokomunitarioaren testuinguratzea borobilduz.

a. Jatorria

Zaila izaten da horrelako galdera bati erantzutea, batez ere gizakiaren jarrera eta ekintzez ari garenean eta baita komunitateaz ari garenean, azken finean, gizakien arteko

harreman eta antolatze moduak betidanik existitu dira gizarte eta komunitate ezberdinetan eta beraz, ezinezkoa da jakitea noiz eman zen lehenengo animazio ekintza. Hala ere, badira data zehatz batzuk ASK-ren jatorria zehazten laguntzen digutenak, Europa mailan gaiari buruzko lehenengo idatziak 1950.urtean agertzen dira Frantzian, Hezkuntza arloko dekretu batean *animateur* gisako hitzak aurkituz. Jarraian, UNESCOren hitzaldi batean ere aipatutako hitzak erabiltzen hasi ziren, momentu hartatik aurrera, asko erabiliz *animazio* zein *soziokomunitario* hitzak kulturaren inguruko debateetan (Sarrate, 2002, 34.orr.).

Data garrantzitsua den modu berean, badira hainbat mugimendu edo ekintza ASK-ren jatorrian aipatzekoak direnak eta hauetako batzuk Hezkuntza popularra eta Helduentzako hezkuntza deritzonak dira. Hezkuntza popularrak, langile klasearen kontzientziak eta sentsibilizazioa lantzea zuen helburu XIX.mendearen amaieran eta XX.mendearen hasieran, Bigarren Mundu Gerrarekin batera, indar handia hartuz horrelako ekimenek. XX.mendetik aurrera beraz, elkarte eta federazio ezberdinen sorrera ematen da Animazioak barneratzen dituen helburu eta teknika ezberdinak jarraituz, esaterako; kontzientziak, parte-hartzea eta dinamizazioa (Sarrate, 2002, 34.-35.orr.).

Orain aipatutako urtea eta mugimenduak dira beraz ASK-ren jatorriaz ari garenean aipatu beharrekoak. Honekin batera, badira faktore batzuk jatorri eta agerpen honetan eragina dutenak, edota agerpen hori erraztu eta bultzatu izan dutenak denboran zehar. Faktore hauek ezagutzeko, industria osteko garaian jarri behar dugu arreta, bertan ematen diren eraldaketa sozial eta kulturalak eragin garbia baitute aipatutako agerpen horretan. Faktore hauek, sozialak, ekonomikoak eta kulturalak dira eta beraien arteko harreman edo interakzioak gizartea aldaketetara prestatzeko beharra eskatzen du. Esaterako, faktore sozial nabarmen bat, garai horretan ematen den hirien egitura aldaketa da, landa-eremuetatik hirietara joaten baitira familia asko eta asko. Faktore ekonomiko garrantzitsurik ere bada garai hartan, globalizazioa kultura eta komunitate ezberdinetara iristen hasten baita pixkanaka. Azken faktorea, kulturala litzateke eta arlo honetan aipatzekoak dira ematen diren deserrotze kultural ezberdinak (Sarrate, 2002, 35.orr.).

Etengabeko eraldaketak jasaten ditu gizarteak eta komunitateak aipatutako garaian, eta momentu artararte finkatutako eskema kultural, sozial eta ekonomikoak

kolokan jartzen dira arrazoi ezberdinak direla medio, familia, komunitate eta gizabanako asko hauetatik kanpo mantenduz. Honen aurrean, ASK-k babes ematea lortu dezake, besteak beste; landa-eremutik hirira mugitu eta beraien lekua aurkitzen ez duten kolektiboei, landa-eremuan bizi eta etengabeko globalizazioagatik mugatuta dauden kolektiboei edota betidanik norberarena izan dela sentitu duen kultura edo komunitate baten parte ez direla sentitzen dutenei.

Aipatutako faktoreez gain, Perez Serrano Martin Gonzalez-ek (1987, 18.-29.orr.) aipatutako batzuekin bat egiten duen arren, beste faktore edo arrazoi batzuk ere gehitzen ditu ASKren sorreran edota hazte prozesuan eragina dutenak. Alde batetik, aldaketen arintasuna aipatzen du faktore moduan, aldaketa teknologikoak, sozialak, kulturalak, ekonomikoak eta politikoak arin ematen direla argudiatuz. Honek gizakia aldaketa horretarako hezteko beharra dakar, etorkizun baterako prestatuz. Gainera, ideia, pentsamendu eta modak denbora oso zehatza dutela ere gehitzen du, baliotsua dena momentu batetik bestera baliogabetuz. Beste faktore bat, aldaketa teknologiko zein informatikoa da autorearen hitzetan eta faktore hau ere gizarteko kolektibo eta gizabanako guztienganaino iristen da. Zientzia momentu oro hazten eta elikatzen da eta gizabanakoa hazkunde prozesu honetara egokitzeko gai izan behar da, zientziak emandakoa disfrutatuz eta norberarena eginez. Faktore honek gainera, gizabanakoaren besteekiko harremanak eta baita norberarekiko harremana aldatzen ditu, faktore garrantzitsuenetako bat bihurtuz. Aisialdiaren gorakada ere faktore gisa definitzen du, gaur egungo gizarte industrialak geroz eta aisialdi gehiago eskaintzen baitu merkatuan. Betebeharretatik eta esparru formal zein arautu horretatik ihes egiteko aukera eskaintzen du aisialdiak gizartean eta geroz eta aukera zabalagoa da aipatutako hau.

Aurretik aipatutako faktoreekin lotuta, etengabeko heziketa ere beste faktore bat litzateke, zeinak gaur egungo eraldaketa eta berrikuntza etengabearen aurrean beharrezkoa bihurtzen den. Eskolaz gain, gizartean hezteko prozesu zein esparru ezberdinak eskaintzen dira gaur egun, gizakiak beharrezko dituenak aldaketetara egokitzeko. Etengabeko heziketaz gain, bada heziketarekin lotutako beste faktore bat, heziketa berdintzailea deritzona, alegia. Heziketa mota honen hazkundera eman da, mesede eginez sozialki zaugarriagoak diren familia eta kolektiboei, hauek ere gizartearen parte direla errekonozituz eta hauen porrota gutxitzeko lan eginez. Azkenik, aurretik ere aipatutako biztanleria urbanoaren hazkundera aipatzen du egileak faktore

gisa, hiri eta gune urbanoen gorakadak, auzo marjinauak, delinkuentzia eta droga zaletasuna areagotu baitute gure gizartean.

b. Definizioak

Aurreko atalean bildutako ASK-ren agerpenean eta gorakadan eragina izan duten faktoreek, behingoz ASK definitzera bultzatzen gaituzte. Definizio bakar batek ez liguke fenomenoaren ikuspegi osoa barneratzen lagunduko eta horregatik, autore ezberdinek landutako definizio eta ikuspegiak kontuan hartzea garrantzitsua da ASK bezalako kontzeptu sakonez ari garenean.

Dakigunez ASK-k, *Animazio* hitza barnebiltzen du eta hitz honen definizio eta ezaugarriek zentzua ematen diote honi kontzeptu osoari, epistemologiak informazio aberatsa eskainiz Animazio soziokomunitarioari. Ventosa-k (2016, 16.-17.or.) azaltzen duen moduan, animazio hitza latinetik dator eta *Animus* zein *Anima* hitzetatik eratorria da. *Animus*-ek, pertsonen arteko harremanetan, mobilizazioan eta dinamizazioan jartzen du arreta, ASK-ren alde materiala erreparatuz, hau da, honen ezagutzak, teknikak, baliabideak eta abar. Animazioaren dimentsio honek esku-hartzearen protagonista den taldean jartzen du arreta eta baita talde honen harremanetarako espazio jakinean. *Anima* hitzak ordea, *bizitza ematea* edo *zentzua ematea* esan nahi du eta komunitatearen desio edo helburuez osatuta dago. Intentzioaren dimentsioari egiten dio so hitz honek, baita sormenaren eta transzendentziaren dimentsioari ere bai, eta dimentsio hau gauzatzeko modua proiektuak sortzea eta gauzatzea da.

Froufe eta Sanchez (1998, 26-29.or.) egileek ere *animazio* hitzaz hausnartu izan dute kontzeptua bera definitu baino lehen eta Barrado-ren (1982) lanez baliatuz, animazioa zer ez den azaltzen dute, puntu zehatz batzuk zerrendatuz. Hasteko, ez da hezkuntza mekanizista eta kulturalista bat, eta beraz, ez dago hezitzaile eta hezituaren arteko mailaketarik. Ez dira jakintza edota informazioa modu masibo batean barnerazi nahi, pertsonak ez baitira pasibo, estatiko eta mekanizatuak. Pertsonak ahalduntzen eta aktibo bihurtuz ikasten da prozesuan zehar. Gainera, animazioa ez da kultura zabaltzeko ekintza huts bat ezta entretenitzeko ekintza zehatz bat. Hau da, nahiz eta aisia eta entretenimendua animazioaren barne egon, ezin da animazioa bera honetara murriztu eta helburu guztiak aisialdira mugatu, haratago doa. Honekin lotuta, animazioa ez da kutsurik edota zentzurik gabeko ekintzak aurrera eramatea, ekintza guztien atzean baitago zer landu eta zer ikasi. Horregatik, ez da ekintzen egutegi soil bat edota zerrenda

bat ere ez, ekintzen artean konexio jakin bat dago eta ziur ekintzak ordenez aldatzen badira, ez direla emaitza berdinak lortuko. Hori gutxi balitz, animazioa ez da borondate oneko ekintza bat soilik, nahiz eta borondate ona garrantzitsua den, borondate horrekin soilik ezin da animazioko ekintza bat burutu, baliabide ezberdinak beharrezkoak izanik ekintzak burutzeko. Amaitzeko joateko, garrantzitsua da jakiten animazioko ekintzak ezin direla beste lurralde eta kultura batzuetan egiten diren berak izan, komunitate bakoitzak bere ezaugarriak dituelako eta hauetara egokitu behar direlako ekintza guztiak. Azkenik, animazioa ezin da merkantilizazioan erori ezta politika instituzionalek sortzen duten esparru zein errealitatera mugatu.

Atal epistemologikoa atzean utzita baina Froufe eta Sanchez-en (1998, 36.-41.or.) autoreen lanarekin jarraituz, hurrengoa da beraiek ASK definitzeko erabiltzen duten ideia multzoa. ASK prozesu arrazional eta sistematiko gisa definitzen dute aipatutako autoreek, helmuga batzuk zehaztu eta hauek betetzeko asmotan, alegia. Talde zein gizabanakoen antolaketa eta planifikazioa beharrezkoak dira horretarako, parte-hartze aktibo baten bitartez, proiektu eraginkorrak aurrera eramanez, beti ere errealitate edo testuinguru sozial bat eraldatu nahian.

Ikusten denez, elementu zehatz batzuk aurki daitezke definizioan eta elementu bakoitzak badauka bere sakontasun eta edukia. Alde batetik, prozesu arrazional eta sistematikoaz aritzen da definizioa eta honekin, ekintza guztiak arrazoi batzuegatik egin behar direla esan nahi du, hau da, norabide eta helburu batekin, ez soilik egiteagatik. Honek gizabanako zein taldea haien ekintzen kontzientzia hartzera bultzatzen ditu. Honekin lotuta, beste elementu batekin egiten dugu topo, helmugak argi izatearen elementuarekin, azken finean, ekintza guztien nondik norakoaz badakizu eta bakoitzaren helburu eta arrazoiak ezagutzen badituzu, prozesuaren helmuga oro argi edukitzea emango da (Froufe eta Sanchez, 1998, 36.-38.or.).

Aipatu bezala, prozesu sistematikoaz aritzen dira autoreak eta elementu hau, gizabanako eta talde oro sistema baten parte direnaren ideian oinarritzen da, sistemako elementu guztien artean etengabeko harreman eta elkar-elikadura emanik. Sistema barreneko gizabanako zein taldeak gainera, antolatuta egongo dira momentu oro eta honek definizioaren beste elementu batekin topo egitera eramango gaitu, pertsonen antolaketa eta planifikazioa deritzon elementuarekin, alegia. Egileek esaten dutenez, pertsonak proiektu komunetan antolatzeak mesede egiten dio gizarteari, taldeko

kontzientzia bat sortzea eragin dezakeelako honek eta baita pertsonen arteko konexio bat sortzea ere bai (Froufe eta Sanchez, 1998, 38.-39.or.).

Garrantzitsua den beste elementu bat, proiektuen eraginkortasun eta balio optimizatzailea da: Hau horrela izanik, gizartearen eraldaketa bilatzen duten proiektuak jaioko dira, komunean gauzatzen diren proiektuak eta pertsona bakoitzarenganaino iristen direnak. Esan bezala, gizartearen eraldaketa ere definizioaren elementu klabe bat da eta aurrekoarekin lotuta, ASK-ko prozesuetan, errealitate edo testuinguru jakin batzuen eraldaketa ematea nahiko da. Horregatik, ASK-k kutsu aldarrikatzaile bat duela ere gehitzen dute autoreek (Froufe eta Sanchez, 1998, 40.-41.or.).

ASK-ren gizartearen eraldaketa kontzeptu edo elementuarekin ere bat egiten du Ventosa-ren (2016, 15.-16.or.) definizioak, esanez, ASK gizarte hezkuntzaren arlo garrantzitsu bat izateaz gain, zeharkako esku-hartze modelo bat ere badela. Zeharkako esku-hartze horrek, metodologia aktibo bat dauka autorearen hitzetan eta prozesu auto-antolatuak aurrera eramaten ditu, beti ere garapen kultural, sozial eta hezkuntza garapena sustatuz.

Hala ere, Ventosa-ren (2016, 16.-17.or.) ekarpen interesgarri bat, parte-hartzearen garrantziaren inguruko ekarpena litzateke. Parte-hartzea oso garrantzitsua da eta horregatik, edozein prozesuren baitan parte-hartzen ikasi behar da taldeko kide moduan. Ikasketa hori ordea, ez da momentukoa eta arina izaten, bere denbora darama prozesuak eta batez ere modu egoki batean parte-hartzen ikasi nahi bada. Horretarako parte-hartzearen didaktikan oinarritzea baliagarria dela arrazoitzen du autoreak eta ASK horretarako tresna paregabea dela deritzo.

Ventosa-k parte-hartzea aztertu izan du lan ezberdinetan eta parte-hartze honek dimentsio politiko eta soziala edukitzeaz gain, heziketaren dimentsioa ere baduela argi uzten du. Gainera, heziketaren dimentsio hau gabe parte-hartzea ezinezkoa litzatekeela arrazoitzen du edo behintzat parte-hartzen ikastea. Parte-hartzen ikasteko beraz, ASK diziplinaren erabilera aldarrikatzen du etengabe, honen funtzio sozial, kultural eta hezitzailea errekonozituz (Ventosa, 2016, 223.-224.or.).

ASK-ren definizioekin jarraituz, Lopez Noguero-k eta Lorena Leon-ek (2002, 141.-142.or.) diotenez, autore asko dira ASK definitu eta aztertu izan dutenak eta askok bat egiten dute zerbait egitera edo parte-hartzera *animatzen* duen diziplina dela

baieztatzean. Egile hauek, Ander Egg autorearen hitzez baliatzen dira esandakoa baieztatzeko eta Ander Egg-en definizioari jarraiki, ASK teknologia sozial bat da, parte-hartzearen pedagogian oinarritzen dena. Bere helburua gizabanakoen parte-hartzearen bitartez, bizi kalitatearen arlo ezberdinen baitan ekintzak burutzea da, beti ere garapen soziokultural bat bilatuz.

Lopez Noguero eta Lorena Leon-ekin (2002, 141.-142.or.) jarraituz, beraien definizioa azaltzean, gizarte justu eta solidario baten alde egiten dute, azalduz, ASK den ekintza antolatua, gizabanakoen garapen soziokulturalaren bitartez, justizia eta solidariotasun hori lortu dezakeela.

Hori gutxi balitz, definizio honekin batera, kontzeptu edo elementu jakin batzuk identifikatzen dira eta hauetako bat, lehenago aipatutako beste definizioetan bezalaxe, garapen sozial eta kulturala da. Gainera, helburu orokorra eraldaketa dela ere gehitzen dute autoreek, beti ere errealitate jakin bat justuagoa eta unibertsalagoa bihurtzen bada. ASK talde pentsamenduan oinarritzen den arren, taldekide bakoitzaren garapena suposatzen duela ere gehitzen dute, gizabanako bakoitza izanik bere buruaren eta bere garapenaren buru (Lopez Noguero eta Lorena Leon, 2002, 142.or.).

Jose Antonio Caride Gomez-en (2005, 77.or.) definizio osatuarekin amaitzen da ASK definitzeko atala. Autore honek, beste hainbat autoreren lanak aztertu eta bertatik hainbat ideia berreskuratu ostean, ASK praktika soziokultural eta praktika hezitzaile bat dela defendatzen du, zeinak garapen sozial zein banakako garapena sustatzen duena. Gainera, tradizio eta aldaketaren arteko bitartekari gisa definitzen du ASK eta aktore sozial ezberdinen bitartez, komunikazioa eta parte-hartzea bultzatzen duen diziplina gisa ere bai. Komunikazio eta parte-hartzeaz gain, sormena, adierazpena, autoerrealizazioa eta eraldaketa soziala moduko hitzekin ere bat egiten du definizioak.

c. Ezaugarriak eta baloreak

Definizioek bezala, ezaugarriek ere kontzeptu edo ideien nondik norakoaz informazio asko eskaintzen digute, geroz eta zehatzagoa. Froufe eta Sanchez-ek (1998, 42.or.) ASK-ren ezaugarrien zerrenda aberats bat landu dute, eta zerrenda hau hastearekin batera aurki dezakegu **parte-hartze kolektiboaren** ezaugarri edo ideia. Parte-hartze aktibo baten bitartez, taldeko pentsamendua garatzen dute prozesuan zehar protagonista diren hainbat gizabanakok eta heziketa prozesu batean ere murgiltzen dira.

Parte-hartze honek, pluralismo ideologikoa bultzatzen du eta modu batean zein bestean, gizabanako orok bere testuinguru edo errealitateaz kontzientzia hartzea dakar, eraldaketa sozialerako lehen pausua izanik aipatutako hau.

Aipatutako parte-hartze horren oinarrian, **elkarrekintzan** oinarritzen den bizitza edo dinamika bat aurki daiteke, hau izanik ASK-ren bigarren ezaugarria. Elkarrekintzan oinarritutako bizitza horren bitartez, eraldaketa sozialetarantz aurrera pausoak ematen dira pixkanaka eta gainera, gizabanakoen arteko harremanak ere sendotzen dira, batez ere elkarrizketa bitarteko harremanak (Froufe eta Sanchez, 1998, 42.or.).

Gizabanakoaren protagonismoa ere ASK-ren ezaugarri dugu, zeinak pertsona ororen autoerrealizazioan laguntzen duen. Gizabanakoari behar duen lekua eta protagonismoa eskainiz, gizarteaz eta errealitateaz kontzientzia hartzea lortzen da eta honek gizarte eraldaketa ezberdinen jakitun eta aldarrikatzaile izatea ere bai. Pertsona orok bere buruarengan eta bere gaitasunengan sinetsi behar dute eta baita hauetan konfiantza oso jarri. Honekin batera esan beharra dago, ASK-ren oihartzuna belaunaldi guztietara iristen dela eta horregatik beste ezaugarri garrantzitsu bat dela **belaunaldiartekotasun** hori, ASK-k ez dauka adin talderik, edonor da ongietorria eta baliotsua, azken finean, adin talde guztietara egokitzen baita ASK, askotan prozesuei adin taldearen izena jarritz; helduentzako animazioa eta hirugarren adinekoentzako animazioa, besteak beste. Guzti honekin argi gelditzen da azken ezaugarria zein den, ASK-ak **bizi kalitatea hobetzen** duela edo behintzat hobetzeko aurrerapauso handiak emateko laguntza ematen duela (Froufe eta Sanchez, 1998, 42.or.).

Zerbait definitzen eta ezaugarritzen ari garenean, baloreek ere asko esaten dute definitzen ari garenaz, batez ere, ideologia eta gauzak egiteko modu zein pentsamenduaz. Xavier Ucar (2012, 13.-16.or.) aipatutako **balore** hauez ari da bere lanetan eta autorearen aburuz, bost dira animatzaileek aurrera eramaten dituzten ekintzetan kontuan hartu beharreko baloreak. Alde batetik eta lehenengo balore ezinbesteko moduan, **formazioa** daukagu, hau da, edozein prozesu baino lehen formatzeko edo autoformatzeko hautua beharrezkoa dela, izan banakako formazioa, taldekoa edo komunitatekoa. Azken finean, balore honek edozein errealitateren aurrean zer egin eta nola egin jakiteko laguntza eskainiko baitigu. Bigarren balore moduan, **elkarrizketaren garrantzia** definitzen du Ucar-ek, pertsona edo taldeen arteko harremanetan elkarrizketan konfiantza osoa jarritz, beraien arteko elkar-elikatze eta

konfiantza eman dadin. Hirugarrenik, **kooperazioaren** garrantzia aipatzen da, edozein ekintza edo prozesuren aurrean, talde zein komunitatearen kooperazioa eta auto-antolaketa beharrezkoak izanik. Honekin batera, talde zein komunitatearen **gaitasunean konfiantza** edukitzea beharrezko balore moduan definitzen du autoreak, etorkizun bat diseinatzerako orduan puntu klabea izanik. Amaitzeko eta konfiantzarekin jarraituz, **talde zein komunitatearen konfiantzaz** gain, beharrezkoa izango da pertsonetan ere konfiantza edukitzea, beraien ekintza eta garapenean konfiatzea, alegia.

d. Dimentsioak

Xavier Ucar (2012, 12.or.) egilearekin jarraituz, esaten duenez diziplina hain konplexu baten aurrean, zaila izaten da ideiak ondo zehaztea eta batez ere denboran zehaztea, hala ere, hiru dimentsio zehazteko pausua ematen du. Gainera, dimentsio bakoitza ezaugarritzea eta bakoitzari helburu jakin batzuk ezartzea oso garrantzitsua dela aipatzen du, batez ere animatzaileen lan eta formaziorako. Alde batetik, **dimentsio teknikoa** aipatzen du, zeinak ASK teknologia sozial moduan definitzen duen. Teknologia sozial moduan definitzean, ASK-k dituen hainbat ezaugarritan oinarritzen da autorea, besteak beste, aurretik aipatu diren arrazionalizazioan, taldeko hausnarketa eta elkar-elikatzean, arazo eta beharrei erantzun bat emateko nahian eta antolaketa sistematikoan.

Dimentsio teknikoa, ASK-ren diseinatzeko, aplikatzeko eta ebaluatzeko gaitasunean oinarritzen da, hau da, planak, programak eta proiektuak diseinatzeko, aplikatzeko eta ebaluatzeko gaitasunean. Aipatutako proiektu guzti hauek pertsona, talde edo komunitate batean aplikatzen dira, beti ere teknika eta prozedura ezberdinak erabiliz (Ucar, 2012, 12.or.).

Dimentsio kulturala da ASK-ren bigarren dimentsioa, eta hau, ASK praktika sozial bat denaren ideia edo ezaugarrian oinarritzen da. Praktika sozial bat da, gizabanako ezberdinek beraien interes, desio, amets eta arazo ezberdinak elkarrekintzan jartzen dituztelako, bakoitzak bere rol eta posizioa mantenduz. ASK-ren bigarren dimentsio honen helburuak, pertsona, talde zein komunitate ezberdinen gogo eta energiak batzea eta proiektu berrien egikaritzan zentratzea da, beraien ongizate eta hobekuntzara bideratuz. Honekin, sare soziokultural bat sortu nahi da, pertsona, talde eta komunitate ororen garapena bultzatuz eta batez ere, hau mantenduz (Ucar, 2012, 16.or.).

Hirugarren eta azken dimentsioa, **politikoa** dugu eta azken dimentsio hau, ASK praktika sozial bat izateaz gain, praktika sozial kritiko bat denaren ideian oinarritzen da, animazioaren paper emantzipatzailea goraiatuz. Dimentsio hau batez ere, pertsona, talde edo komunitate esplotatuetara bideratzen da, edozein esplotazio edo zapalkuntzara, alegia. Dimentsio honen bitartez, aipatutako zapalkuntza edo esplotazio horietatik liberatzea lortu nahi da, honetarako kontzientzia bat sortuz eta garatuz.

e. Beste diziplinekin lotura

Beste hainbat diziplinekin gertatzen den moduan, ASK-k ere hainbat iturri eta korrontetatik edan izan du bere garapenean, hauekin harremana mantenduz orain ere eta hauen eragina ASK-ko ezaugarri ezberdinetan ikusiz. Xavier Ucar-en aburuz, sei dira ASK garatzen lagundu duten korronteak. Lehenengo korrontea, **kulturalista** da eta Frantziatik dator. Frantzian, kultura garapenerako giltza izan zitekeenaren ideia zabaldu zen eta hainbat autore honekin lanean hasi ziren. Honi esker, bertan aurrera eramandako ekintza eta dinamika ezberdinak ezagutu ahal izan ziren beste estatu batzuetan, bat Espainiar estatua izanik (Gomez, 2018, 7.or.).

Bigarren korronte bat, **gizarte langintza** da. Komunitateko gizarte langintzaren arloan, animazio soziokomunitarioa erabiltzen zen taldean lan egiteko eta helburu ezberdinak lortzeko. Animazio proiektuak, testuinguru eta komunitatera egokitzen ziren eta helburuak hasieratik zehazten ziren, bai orokorrak eta baita zehatzak ere (Gomez, 2018, 8.or.).

Heziketa popularra edo herri heziketa ere ASK-ren beste korronte garrantzitsu bat dugu eta korronte honen ideia askoren jabe Paulo Freire da. Autore honek, esku-hartze soziokultural eta hezitzailearen metodologia zein marko filosofiko-antropologikoa zehaztu zuen, garrantzia handiko lana izanik eduki eta teoriari dagokionean. Garai horretan Espainiar estatua egoera sozial konplikatu batean egoteak, eragin handia izan zuen ekintza eta proiektuetan, arrakasta handiko korrontea izanik aipatutako hau (Gomez, 2018, 8.or.).

Garapen komunitarioa den korronteari dagokionez, 60.hamarkada inguruan eduki zuen garrantzia Espainiar estatuan. Hasieran garapen komunitario hau, gizarte langintza eta soziologiarekin lotzen zen gehiago, arlo sozio-educatiboarekin baino eta

Frantziatik iristen ziren ekintza popular eta proiektuen antzekotzat hartzen ziren (Gomez, 2018, 9.or.).

Azkenik, **aisialdi hezitzaile** eta **aisiaren pedagogiaren** korrontea dago aipatzeke, zeinak oso garapen heterogeneoa eduki duen Espainiar estatuan. Katalunian adibidez, haurtzaroko zein gaztaroko garrantzia handiko mugimendu gisa definitu zen XX.mendearen hasieratik, garapen handia edukiz 60 eta 70.hamarkadetan (Gomez, 2018, 9.or.).

f. Animazio soziokomunitariorako jardunbideak

Animazio soziokomunitarioa testuinguratzen amaitzeko, hau nola gauzatzen den ikustea falta zaigu, teoria asko landu baitugu arinagoko ataletan baina oraindik ez dugu aztertu nola gauzatzen den praktikan ASK, edo beste hitz batzuetan esanda, zein ekintza zehatzetan ikus dezakegun ASK. Atal hau osatzeko, Ander Egg egilearen lan zehatz bat erabiliko da, *Metodologia y practica de la Animacion Sociocultural* liburuan jasotako *Las Actividades especificas a partir de las cuales se puede realizar la animacion sociocultural* kapitulua, alegia. Lan honetan, ekintza edota jardunbide guztien sailkapen eta zerrenda bat egiten du egileak, bost multzo nagusi eratuz.

Lehenengo multzoa, **formakuntza jardueren** multzoa da eta hau, hezkuntza informala baita edo nagusien hezkuntzaren baita aurkitzen diren ekintzekin osatuta dago. Izenburuak dioen moduan, pertsona eta taldeak formatzea eta hezte bilatzen da ekintza hauen bitartez, gizabanako hauek kritiko bihurtuz eta beraien erabaki eta erantzunen jabe eginez. Ekintza hauek taldeak gauzatzeko eta baliagarriak izan daitezen, hainbat gauza hartu behar dira kontuan eta hauetako lehenengoa, jendearen intereseko gaiak izatea da, azken finean, jendearen motibazioa eta parte-hartzea lortu behar baita. Bigarren kontuan hartu beharrekoa ekintzak gauzatzeko moduarekin dago lotuta, aipatutako motibazio eta parte-hartze hori lortzeko, modu erakargarri bat izan behar baita, esaterako, tailer bidez. Azken kontuan hartu beharrekoa ordea, pedagogiarekin lotzen da zuzenean, pedagogia parte-hartzailea erabili beharra dago. Gizabanako eta taldea parte-hartzera eta ahalduntzera animatu beharra dago, hauen gaitasun eta indarguneetan begirada jarriz (Egg, 2000, 338.-346.or.).

Bigarren multzoa berriz, **hedapen kulturalerako jarduerena** da. Kulturarekin egunerokotasunean egoten gara harremanetan, edozein ekintza eta jarrera hartzean, gai

ezberdinen inguruko iritzi bat edo beste defendatzean, ohitura bat behin eta berriro errepikatzean, gure historiaz zein jatorriaz ari garenean, antzinako kontuan oroitzen ditugunean eta abar. Baina gaur egun, zalantzan jarri da ea produktu kulturalak gizabanako, talde zein komunitate guztietara modu bereberean iristen direnaren ideia. Hau ordea, gizabanako ororen eskubidea da eta horretarako sortzen dira aipatutako hedapen kulturalerako jarduerak, gizabanako ororengana iristeko kultura hau. Azken finean, ASK-ren bitartez identitate kulturala landu daiteke eta baita ondore historiko-kulturala ezagutu eta behin ezagututa hau errekonozitu ere bai, honekiko maitasun eta bat izatearen sentimendua sortuz. Hau horrela izan dadin, museoak tresna egokiak dira hedapen kultural hori lortu ahal izateko, bizitza kulturala hedatzea helburu izanik. Gainera, museo hauetan aurrera eramaten diren animazio programekin, modu dinamiko batean lortu daitezke aipatutako helburuak eta pixkanaka, gizabanako, talde zein komunitate ezberdinen identitate kulturala sortzeko bidea hasi eta mantendu daiteke (Egg, 2000, 346.-351.or.).

Adierazpen artistikoko ekintza ez profesionalak beste multzo bat osatzen dute ASK-rako jardunbideez ari garenean. Dakigunez, artea oso lagungarria izan daiteke norberaren ideia zein sentimenduak adierazteko eta ideia abiapuntutzat hartuz, ASK-k ezin du arte hau albo batera utziz. Ekintza hauekin, ez da artea eta obra ezberdinak ezagutzea lortu nahi, hau da, ez da kontsumo kulturalarekin bat egin nahi, gizabanakoek kulturaren parte-hartzea lortu nahi da, edo honetarako moduak aurkitu nahi dira, behintzat. Horregatik, garrantzitsua da espazio eta baliabideak eskaintzea gizabanakoei, ondoren beraiek sormena eta adierazpena landu dezaten baliabide eta espazio horiek aprobetxatuz (Egg, 2000, 351.-352.or.).

Ekintza multzo hau, modu oso ezberdinetan eraman daiteke aurrera, ekintza multzo anitza izanik, besteak beste, arte tradizionalako ekintzak izan daitezke eta baita ikus-entzutekoak ere, edota konposizio musikalak, hizkuntza eta literatura ere bai. Aipatutako ekintza hauek pertsonen adierazpen eta sormenean oinarritzen dira eta garapen pertsonalari ere mesede egiten diote (Egg, 2000, 352.-353.or.).

Hala ere, hauetan parte-hartzera bultzatu behar da gizartea eta hau izaten da prozesu askoren lanik eta gogorrena. Horregatik egileak, baldintza edo egiteko batzuk zerrendatzen ditu lanean, aipatutako ekintzetara herria parte-hartzera bultzatzeko. Esaterako, parte-hartzea sustatzeko modu egokia izan daiteke leku edo espazio zehatz

batzuk sortzea soilik sormen ekintza eta adierazpen ekintza hauek aurrera eramateko, bai taldeko zein banakako ekintzak. Leku eta espazio horietan tailer publikoak eskaintzeak ere parte-hartzea areagotu dezake, doako tailerrak izateak, jende gehiago hurbiltzea ekar dezakeelako. Hau horrela izan dadin, diru-laguntza ezberdinak ere eskaini beharko lirateke horrelako inizatibak aurrera ateratzeko noizean behin. Parte-hartzea bultzatzeko beste aukera bat, gune publikoak (kaleak, tabernak, bulegoak ...) apaintzea izan daiteke, adibidez mural eta marrazkiekin, komunitateak honen berri izan dezan eta animatu dadin (Egg, 2000, 354.or.).

Ikusten denez, aipatutako prozesu hauekin gizartean zabaldu daitezke adierazpen artistikoko hainbat ekintza, baina ezin dugu espero kalitate artistikodun materialak izatea, azken finean, parte-hartzaileak ez direlako artista profesionalak eta ez dutelako artista batek eduki dezaken jakintza edo ezagutzarik. Hala ere, beste ikuspuntu batetik begiratu behar dira emaitza hauek, ikusirik nola gizarteari adierazteko aukera ematen zaion horrelako ekintzen bitartez eta nola gizabanako bakoitzaren iritzi eta pentsamendua islatu daitekeen horrelako prozesuen bitartez. Artea ez da soilik estetikoak, artea adierazteko eta sortzeko tresna bat ere bada, eta askotan eraldaketa sozialerako giltza ere bai (Egg, 2000, 355.or.).

Ekintza artistiko ez profesionalen adibide argi batzuk azalduko dira jarraian, ASK-ren eskutik zer nolako ekintza zehatzak garatu daitezken ikusteko eta hauen helburuak ezagutzeko. **Gorputz adierazpena** esaterako, ekintza egokia da ASK-ren oinarri moduan erabiltzeko, gainera, animatzaile edo profesional ikasketetan oso erabilgarria da mundu honetara sartzeko. Gorputz-adierazpenak, norbere barreneko alde sortzaile, osasuntsu eta sentibera ezagutzeko aukera ematen digu eta hau ezagutu ostean, norbera aldatzeko tresnak ere eskaintzen dizkigu. Gainera, oreka psikologiko zein fisikoa mantentzeko ekintza ezin hobea da hau eta energia berria sortzeko ere balio du. Laburbilduz, Gorputz adierazpenak norbere buruaren gaineko kontzientzia hartzea ahalbidetzen du eta honekin batera, norberaren oreka psikologiko zein fisikoa aurkitzea ere bai, behin oreka hau lortuta, norbere buruaz gehiago gozatzea eta probetxua ateratzea suposatuz (Egg, 2000, 358.or.).

Ekintzen beste adibide bat, **musika** da, aukera hau gozamen espiritualerako, emozionalerako, poztasunerako eta zorientasunerako giltza izanik. Baina dakigunez, musika mota ezberdinak daude gure inguruan eta guztiak ez dira guztion gustuko;

bakoitzak mota batzuk maitatzen dituen moduan, beste batzuk gorrotatu ahal dituelako. Gustu hauek ordea, informazio asko ematen digute bakoitzaren mundua ikusteko moduz. Azken finean, bakoitzaren gustu eta izaeraren arabera, modu ezberdin baten ikusi eta biziko dugu musika baina beti izango da heziketa eta garapen tresna baliagarri bat; emozioen adierazpenerako erabiliz gero, edo aldarrikatze zein borrokarako erabiltzen badugu, mezu bat transmititzeko erabiltzen bada edota identitate kultural propioa garatzeko aukeratzen badugu (Egg, 2000, 362.or.).

Ekintza artistiko ez profesionalen azalpenarekin amaitzeko, azken adibidea **ordenagailu bidez sortutako artea** izango da. 1950. urtetik aurrera, Estatu batuetan marrazkiak egiteko modu berri bat sortzen da, aparatu elektronikoen bitartez, alegia. Modu berri honek, artista plastikoen haserrea pizten du garai horretan eta gaur egun ere, bada jendea aipatutako arte hau, arte kontsideratzen ez duenik. Hala ere, aipatutako data horretatik aurrera eta gaur egun arte, arte mota hau asko hazten da eta honen adibide dira ordenagailu bidez sortutako arte motak; arte grafikoa, eskultura zibernetikoak, artista plastikoen arteko telekomunikazioa eta bideo-diskoa (Egg, 2000, 367.or.).

ASK-ren jardunbideekin jarraituz, laugarren multzoa **ekintza ludikoen** multzoa da; festak, dantzak, jolasak eta musika, esaterako. Ekintza ludikoek betidanik izan dute lekua gizabanakoen bizitzetan eta kulturaren parte direla esan daiteke. Ekintza guzti hauen atzean esanahi bat ezkututzen da, ez dira egite soilagatik egiten eta hau kontuan hartu beharrekoa da ASK-z ari garenean. Hala ere, bada jendea ekintza ludikoei garrantzia kentzen diotena aurrera eramateko moduagatik, azken finean, modu *ez-serio* batean egiten direlako eta askotan aisialdi testuinguru batean. Baina argi gelditu behar da, ekintza ludikoak aurrera eramateko modu eta espazioak ezin diola balioa kendu ekintza multzo honi, dimentsio eta funtzio kultural garrantzitsu bat baitute hauek. Gainera, ekintza ludikoek egunerokotasunean agertu daiteken monotonia eta errutina apur dezakete, gizabanako zein taldeen motibazio eta parte-hartzea berreskuratuz. Hona hemen ekintza ludikoen zerrenda bat; Festak, jolasa, birsortzea eta zabaltzea eta kirol-ekintzak (Egg, 2000, 368.-384.or.).

Bosgarren eta azken multzoa ASK-ren jardunbideekin amaitzeko, **ekintza sozialen** multzoa izango da, zeinek antza handia duten komunitatea garatzeko sortzen diren ekintzekin. Ekintza hauen bitartez, pasibitate eta indibidualismoari aurre egin nahi zaio, pertsonen arteko harremanak sustatuz eta interes komuneko ekintzak aurrera

eramanez. Horrez gain, herriaren sentsibilizazio eta parte-hartzea bilatzen da ekintza hauekin, gizarte zibilari mesede handia eginez modu honetan. Modu batean edo bestean, herritarrak berain errutinatik irtetera animatzen dira ekintza hauekin eta gizartean egon daitezken arazo ezberdinen elkarrekin aurre egitea ere bai. Hau horrela izan dadin, elkartzeko leku eta momentuak sortu behar dira ondoren ekintza hauek egi bihurtzeko eta aldi berean, ekintza hauetako lehenengo pausua azaltzea ere baliagarria izaten da ondoren prozesuak bere fruitu eta emaitzak eman ditzan. Ekintza sozial hauen adibide dira, besteak beste, bizilagunen elkarte edo taldeak, gurasoen elkarteak, ikasle ohien elkarteak eta baita garapenerako gobernu kanpoko erakundeak (Egg, 2000, 384.-386.or.).

3- Animazio soziokomunitarioaren funtzioak eta profesionalen ezaugarriak

Orain arte ezagututako eduki sortarekin, nabarmena da ASK-ak **funtzio ezberdinak** dituela gizartean, eta hauek zerrendatzeak ASK-ren balioaz konturatzea ekar dezake. Lopez Noguero eta Lorena Leon-ek (2002, 144.-145.or.) diotenez, gure gizarteak eraldaketa nabarmen ugari bizi izan ditu azken hamarkadetan, eraldaketa askok gizartea desorekatzea ekarri dutelarik. Eraldaketa eta desoreka batzuk hain izan dira handiak, errealitate eta testuinguru sozial askotan eragin dutela aipatutako hauek, benetako arazo eta ezinegonak sortuz hainbat talde eta komunitatetan. Gainera, mundu mailako krisi batean sartu garela ere aipatzen dute autoreek, bereziki kultura eta hezkuntza arloko mundu mailako krisi batean, zeinetan inoiz baino errefortzu eta baliabide gehiago behar diren egoera ezberdinei aurre egiteko. Guzti honen sorrera ordea, gizarteak berak ekarri du, gizakiak sortu du alegia, eta honi aurre egiteko ere, gizarteak berak eta gizakiak eman behar du aurrerapausoa. Gizabanakoen arteko lehiak eta gorrotoak gure gizartea geroz eta gehiago gaixotzen eta zailtzen du gaur egun eta nahiz eta askotan onartzen ez den, aldaketa eta laguntza bat behar du gure gizarte eta egunerokotasunak. Egoera honi, gaur egun oso zabaldua dagoen jarrera berekoia gehitu behar zaio, gizarte kontsumista eta indibidualista honek horrela izatera bultzatzen baitu gizabanako oro. Larriena da, gizabanako asko eta askok, bere egoera zapaldu edota baztertu horretatik irteteko modurik aurkitzen ez duela, batez ere, informazio eta baliabide falta zabala dagoelako.

Guzti honengatik eta guzti hau aldatu nahian, ASK bezalako diziplina batek **funtzio** zehatz batzuk eduki behar ditu, prozesu oro esandako egoera eta errealitatea kontuan

hartuta aurrera eramán daitezén. Alde batetik, ASK-ren lehenengo funtzioa, **parte-hartze eragile** izatea da, hau da, gizabanako, talde zein komunitateek prozesu ezberdinetan parte-hartzera bultzatzeko funtzioa eduki behar du, kolektibo hauentzat bultzada bat eta motibazio bat. Bestalde, **balore kulturalak** mantendu eta zabaltzeko funtzioa ere eduki behar du diziplinak, eta batez ere, balore kultural horiek pertsona eta kolektibo ezberdinengan influentzia bat edukitzea lortu behar du. Hirugarren funtzio argia, **errealitate sozialen eraldaketa** iturri eta bultzatzaile nagusia izatea da, honen gaineko kontzientzia eta jarrera bat sortu eta mantenduz. Hala ere esan beharra dago, ASK nagusiki, prozesu eta ibilbide osoaren babesle eta laguntzaile izan behar dela, ez zuzendari edo agintari. Azken finean, gizabanako eta taldeak ahalduentzeko lana eta kontziente bihurtzeko lana egin behar du diziplinak, beti besteen autonomia eta erabakiak errespetatuz (Lopez Noguero eta Lorena Leon 2002, 145.or.).

Orain aipatutako funtzioak bete daitezén eta ASK bere zentzua galdu ez dezan, garrantzitsua da baita ere animatzaileek edota **profesionalek** zer nolako **ezaugarri eta jarrerak** eduki behar dituzten jakitea, profesionalek prozesuaren alor garrantzitsu bat betetzen dute eta beraiek ematen diete jarraipena diziplinari.

Profesionalak **teknika eta ezagutza** ezberdinen bitartez eramango du aurrera ASK-ko prozesu bat, hau izanik animatzaileak eduki beharreko lehenengo ezaugarria eta teknika hauek animazioaren metodologia jakin baten barreneko teknika multzoa izango da. Hauekin bigarren ezaugarriarekin egiten dugu topo; profesionalak **helburu hezitzaileak, kirol helburuak eta helburu kulturalak** dituzten ekintzak sorraraziko ditu, taldearen garapen kulturala lortu ahal izateko. Gainera, profesionalak gizakiaren eta gizartearen **behar, desio eta ametsak** ondo ezagutuko ditu, hauen gainean ekintza jakin batzuk aurrera eramateko. Hau horrela izanik, animatzaileek jarrera eta etika jakin bat izatea beharrezkoa izango da, **bestearen bizitza errazteko gaitasuna** eduki behar du eta horregatik, ez da profesional soil bat izan behar, ezta espezialista bat ere ez, besteen sekretu handienak ezagutzeko eta aurkitzeko gai den esploratzaile bat behar du izan. Laburbilduz, esan daiteke animatzailea izan behar dela sormena bultzatzen duena eta baita identitate zein bat izatearen sentimendua zabaltzen duena pertsona eta talde ezberdinen artean (Programa Nacional Aprender Enseñando, 2016, 4.or.).

Animatzailea izan behar da komunitatearen parte-hartze aktiboa bultzatzen duena eta baita helburuetara egokitzeke lana egiten duen profesionala ere bai, prozesu eta ibilbide bakoitzak bere helburuak dituela jakinik. Esan bezala, kontzientziazioa bultzatzeko giltza eduki behar du animatzaileak eta behin kontzientzia hori zabalduta dagoenean, hau adierazteko ekintzak ere diseinatu beharko ditu. Beti ere, pertsonen autonomia bultzatuz egingo du aipatutakoa eta bakoitzaren ideologia eta baloreak errespetatzea ere kontuan hartu beharko du (Programa Nacional Aprender Enseñando, 2016, 4.or.).

Animatzaileak eduki beharreko jarrera eta funtzio hauez gain, badira jarrera eta funtzio hauetatik eratortzen diren **hainbat rol** eta hauekin amaituko genuke animatzailearen papera edo ezaugarrien zerrenda osatzen. Rol ezberdinak bereizi daitezke, baina aipatzeko garrantzitsuak hiru dira. Hauetako lehena, **politikoa** da, azken finean, gizabanako eta taldeak kontzientzia hartzeko lana egiten du eta errealitate sozialaren eraldaketa sustatzeko lana ere bai. Bigarren rol-a, **pertsonalista** da eta rol honen arabera, animatzaileek gizabanakoak autonomoak eta arduratsuak izaten laguntzen dituzte, beraien kritikotasuna garatzea ahalbidetuz. Azkenik, hirugarren rol-a, **sortzailea** dela esan daiteke, animatzaileek sortzen edo xaxatzen baitute bakoitzak bere testuingurua eta errealitatea kolokan jartzeko jarrera hori eta baita beste dimentsio eta desio batzuk ezagutzeko nahi hori ere bai (Programa Nacional Aprender Enseñando, 2016, 4.-5.or.).

4- Bi adibideren deskribapena

Testuinguraketa teoriko sakon bat aurrera eraman ostean, ASK-ren adibide ezberdinak ulertzea errazagoa da, baita hauek ikuspuntu profesional batetik begiratzea ere bai. Hurrengo lerroetan bi adibide praktiko landuko dira, hauen nondik norakoa aztertuz eta animazio ekintza gisa zergatik definitzen dien ulertuz.

a. Bizilagunak egitasmoa

Lehenengo adibide gisa, **Bizilagunak** izeneko egitasmoa dugu, *SOS arrazakeria* elkarteak antolaturikoa. 2012.urtetik darama martxan egitasmoak eta urtean 2.000 bat pertsonen parte-hartzen dute proiektuan. Gaur egun Euskal Herrian jatorri, kultura, ohitura eta pentsamendu oso ezberdinak dituzten bizilagunak bizi dira eta hauek

kontuan hartu nahian eraman izan da aurrera urtez-urte proiektua, protagonisten elkar-
ezagutza sustatu eta harremanak sortzeko (Etxebarria, 2015).

Egitasmo honetan familia ezberdinek hartu dute parte, bai bertako familiek eta
baita familia etorkinek ere. Dakigunez, familia hitza oso zabala da gaur egun eta are
gehiago kultura eta ohitura ezberdinez ari garenean, horregatik, familia bakoitzak bere
izaera, pertsona kopuru eta antolaketa eduki du, besteek hauek ezagutu eta errespetatu.
Egitasmoaren ekintza nagusia, bi familien arteko bazkari bat antolatzea izan da,
bakoitzaren gustu, ohitura eta elikagaiak kontuan hartuta noski, hauen elkar-trukea
sustatuz. Bi familia hauetako bat bertakoa izan den modu berean, beste familia etorkina
izango litzateke eta *SOS arrazakeria* elkarteko dinamizatzaile batek ere hartuko luke
parte trukea eraginkor eta aberasgarri izaten ari dela ziurtatzeko (Agirre, 2012, 52.-
53.or.).

Baina, zergatik da egitasmo hau ASK-ko ekintza bat? Hasteko esan beharra dago
komunitateari zuzenduta dagoen ekintza bat dela argi eta garbi eta horrela izateak jada,
ASK-ko ekintza bat izatea suposatzen du. Froufe eta Sanchez egileen lanetan oinarrituz
gero, ekintza batek lehenengo ezaugarri gisa, parte-hartze kolektiboa eduki behar du eta
egitasmo honek, bete-betean bat egiten du ezaugarri honekin, familia ezberdinen parte-
hartze aktiboa eskatzen duelako, bai aurreko antolakuntzan eta baita bazkarian bertan.
Horrez gain, *SOS arrazakeria* bezalako elkarte batek antolatu izan duenez egitasmoa,
ekintza asoziatibo bat dela esan daiteke, inongo irabazi asmorik ez duena eta
herriarentzat antolatua izan dena. Kolektibo eta pertsonen ematen dio garrantzia
proiektuak, hauek erdigunean jarritz eta gainera, belaunaldi-artekoa ere bada, familietako
kideek ez baitute inongo adin mugarik ezarrita. Azkenik, esan daiteke bizi-kalitatea
hobetzearen alde ere egiten duela proiektuak, familien arteko sozializazio eta elkar-
ezagutza emateaz gain, onarpena eta errespetua ere lantzen direlako bertan (Froufe eta
Sanchez, 1998, 41.-44.or.).

Adibide praktikoa honen analisia borobiltzeko, esan daiteke Ander Egg egilearen
ASK-rako jardunbideen multzoketa jarraituta, ekintza sozialen multzo edota
jardunbideetan sartzen dela ekintza hau. Egileak dioen moduan, indibidualismoari aurre
egin nahi die ekintza hauek, pertsonen arteko harremanak sustatuz batez ere.
Bizilagunak proiektuak, familien arteko harremanak sustatzen ditu batez ere eta
indibidualismoari aurre eginez, beste kulturak eta ohiturak ezagutzeko gonbidapena

luzatzen du. Gainera, Egg-ek dioen bezala, herritarrak beraien errutinatik deskonektatzeko aukera ere luzatzen du egitasmoak (Egg, 2000, 384.-386.or.).

b. “Animabarríos” proiektua

Bigarren adibide praktikoa, gazte zein haurretan zentratzen da gehiago, beraien behar sozialetan begirada jarritz. **Animabarríos** proiektuak, aipatutako kolektibo hauei aisialdi alternatibo bat eskaini nahi die, oinarri sozial eta hezitzailea duen aisialdi bat, alegia. Proiektuak, beste 10 proiektu barneratzen ditu eta eskualdeko hainbat elkarteren eskutik eramaten dira hauek aurrera. Antza denez, Salamanca auzo berriak sortzeko prozesuan zegoen 2006.urte inguruan eta familia gaztedun auzoetan jarri zen martxan proiektu hau, beraien aisialdi alternatibo eta osasuntsuaren alde lan eginez. Azken finean, gaur egungo aisialdia hein handi batean, indibidualismoan, kompetentzian eta kontsumoan oinarritzen da eta honi aurre egiteko, ekintza ezberdinak proposatzen dira, besteak beste; CD bat grabatzea edota gai ezberdinen inguruko sentsibilizazioa (munduan zehar dauden gerrak, kultura ezberdinetako gabonak ...) (Hernandez, 2006, 357.-369.or.).

Lehenengo adibide praktikoa egin bezala, adibide hau ere ASK-ko ekintza bat dela ziurtatzeko, Froufe eta Sanchez-en irizpideak jarraituko dira. Alde batetik, belaunaldi artekoa dela esan daiteke, azken finean, orokorrean familia gazteak izan arren, adin ezberdinetako haur eta gazteek parte hartuko dutelako proiektuan eta baita hauen gurasoek, modu zuzenean ez bada ere. Bestalde, parte-hartze kolektiboa suposatzen du, ekintzen antolaketan eta prozesuan parte-hartze aktibo bat eskatzen duelako proiektuak. Gainera, elkarte ezberdinek lan egingo dute proiektuaren alde, inongo irabazteko asmorik gabe, noski. Amaitzeko, esan beharra dago, bizi-kalitatea hobetzearen alde lan egiten duela nabarmenki, aisialdia pertsonon oinarritzeko behar bat baita eta aisialdi alternatibo bat garatzeak, gure gaitasun, iritzi, sentimendu, gustu eta beste hainbat aspektu aberastea ekar dezake (Froufe eta Sanchez, 1998, 41.-44.or.).

Aurreko adibide praktikoa bezalaxe, adibide hau ere ekintza sozialen multzoan sartuko litzateke, komunitatea garatzeko sortua baita. Animabarríos-ek aisialdi indibidualista eta kontsumistari aurre egin nahi dio eta horregatik, ekintza sozialtzat har dezakegu, hauek ere indibidualismoa alde batera uztea lortu nahi baitute. Aisialdi alternatibo baten gaineko kontzientzia eta sentsibilitatea bilatzen du proiektuak, ekintza sozial orok sentsibilizazioaren alde egiten duen modu berean (Egg, 2000, 384.-386.or.).

5- Ikasgelako ekintzak

Ikasgelan ere, ASK-ko ekintza ezberdinak ezagutzeko eta hauetan parte-hartzeko aukera izan dugu lauhilabeteko honetan zehar. Zehazki, Euskaraldia bezalako ekimena aurrera eraman dugu zentroan, honen talde eragilearen parte izateaz gain, parte-hartu ere egin dut ekintza honen prozesuan zehar. Gainera, tertulia dialogiko batean parte-hartzeko aukera ere eduki dugu ikasleok, talde txikian zein handian lan eginez. Boluntariotzaren sustapenaren inguruko hitzaldi bat ere jaso dugu, eta honen gaineko hausnarketa burutu ere bai. Azkenik, *word kafe* gisako ekintza bat ere burutu da lauhilabetekoan, ASK-a eta ikasleon praktika gunek elkarlotuz.

a. Euskaraldia

Aurten lau haizetara zabaldu den ekimena den arren, **Euskaraldiaren** jatorria duela zazpi urteren baitan aurki daitekeela esan beharra dago, denbora luzez iraun duen prozesu eta ekimen bat baita hau, Euskal Herriko txoko ezberdinetara iritsi dena, alegia. Hizkuntza-ohiturak aldatu eta inertziak apurtzeko ekimena da Euskaraldia eta 2018ko Azaroaren 23tik Abenduaren 3rako 11 egunetan, bere erabateko zabaltzea izan zuen, egun hauetan egondako parte-hartze sozial eta ekimenengatik (Lagos eta Illaro, 2018, 66.or.).

Euskal Herrian gertatu zen modu berean, Gizarte Langintzako unibertsitate eskolan ere Euskaraldia disfrutatu genuen, 11 egun hauetan ekintza ezberdinak sortuz eta euskaraz mintzatuz. Hala ere, egun hauetako antolaketa eta koordinazio guztia, ikasgai honetatik eman zen eta talde eragile bat sortu genuen gelako hainbat ikasleek ekimena aurrera eraman ahal izateko. Euskaraldia ikasgai honen bitartez lantzeko arrazoia, ASK-ko ekintza bat denaren ideia da, Froufe eta Sanchez-ek (1998, 36.or.) esaten duten moduan, helburu ezberdinen bitartez pertsona eta taldeak antolatzea bilatzen baitu ekimenak, hauen parte-hartze aktiboa bultzatuz eta errealitate sozial batean eraldaketa sustatuz. Azken finean, Euskaraldiak helmuga eta helburu ezberdinak izan ditu bere prozesuan zehar, besteak beste, hauetako bat hizkuntza-ohiturak aldatzea izanik. Gainera, bai gizabanakoak antolatzeaz gain, erakunde, instituzio eta milaka talde zein komunitate animatu ditu parte-hartzera, 11 egun hauetan behintzat, pertsona guzti hauen parte-hartze aktiboa beharrezkoa bihurturik.

Horrez gain, Euskaraldiak ASK-ko ekintza batek bete beharreko ezaugarriekin ere bat egiten du, besteak beste, parte-hartze kolektiboaren eta gizabanakoaren protagonismoaren ezaugarriekin. Parte-hartzea beharrezkoa izan da Euskaraldiaren egikaritzan, esan bezala, Euskal Herriko pertsona ororen laguntza behar izan baita prozesuak aurrera jarrai dezan eta pixkanaka errealitatea eraldatu dadin. Gainera, belaunaldi artekotasunaren ezaugarria ere betetzen du ekimenak, inongo adinik ez duen prozesu bat izanik aipatutako hau. Eta bizi-kalitatearen hobekuntzan ere lan egin du ekimenak, edonoren egunerokotasunean eragin ahal izan baitu prozesuak, besteak beste, pertsonen arteko harremanen hobekuntzan, komunitateen arteko ezagutza zein hurbiltzean eta abar (Froufe eta Sanchez, 1998, 36.-45.or.).

Euskaraldiak beraz, badu zeresana ASK-az ari garenean eta baita 11 egunetan gauzatu ziren ekintza ezberdinek ere bai. Egun hauetan, kafe tertulia, argazki masiboa, photocall-a eta esperientzien partekatzea antolatu ziren, ahobizi eta belarriprest-ak hauetara animatuz, antzerkitxo eta mozorroez baliatuz. Hau horrela izanik eta Ander Egg-en (2000, 384.-388.or.) irizpideak kontuan hartzen baditugu, Euskaraldia bera jarduera sozial gisa har daiteke, oro har, komunitatearen behar eta ongizateari zin egiten dielako ekimenak eta harreman sozial zein parte-hartze sozialari ere erreparatzen diolako prozesuak. Herritarrak beraien errutinatik irten eta beraien egunerokotasuneko arlo ezberdinetan aldaketa bat egitera edo hausnarketa bat burutzera bultzatzen ditu Euskaraldiak, espazio bateratuak sortuz.

Aipatutako prozesu eta ekimen hau aurrera eramateko, talde eragileko kideok bilera eta aztertze lan ezberdinen bitartez, Gizarte Langintzako eskolan aplikagarriak izan litezken ekintzak antolatu genituen, lau mailetako ikasleak beraien herrietan parte-hartzeaz gain, unibertsitate eskolan ere parte-hartzera animatuz. Antolatutako ekintza zehatzek orokorrean ez zuten arrakasta handirik eduki, ordutegiak zirela medio, baina unibertsitatean Euskaraldiaz hitz egitea eta honen inguruko informazio eta ezagutza zabaltzea lortu zen, ikasle, langile eta irakasle komunitateak gaiaren inguruan kontzientziatuz eta hausnartzera bideratuz eta gizartean ematen ari zen ekimena gurean islatuz, pixkanaka norberak bere egunerokotasunean eta norberaren bizitzan euskararen erabilera eta hizkuntza ohituren inguruko interesa piztuz eta errealitatearen eraldaketarako tresnak eskainiz.

b. Tertulia dialogikoa

Lehenengo ASK-ko ekintza, **tertulia dialogiko** bat aurrera eramatea izan zen eta horretarako, aurretik testu batzuk irakurri genituen ondoren gelan landu ahal izateko. Bi testu irakurri genituen, Aranzazu Rodriguez-en *El ocio como herramienta del Trabajo Social* eta Maria Luisa Setien-en *Aisiazko ikaskuntzak hainbat ikuspegitik* kapitulua.

Testu hauek irakurtzeaz gain, testu osotik atentzioa deitu zigun esaldi edo ideiarenekin bat azpimarratzea ere eskatu ziguten dinamizatzailerik, ondoren hauen gaineko hausnarketa egiteko. Ikasgelan, gure esaldi eta ideiak irakurri eta komentatu genituen talde txikietan, dinamizatzailerik ideia guztiak jasotzen zituen bitartean. Ondoren, talde handian jarri ginen eta talde bakoitzak bere laburpen eta ideiak bota zituen, guztion iritziak entzuteko aukera emanez eta hausnarketarako ateak irekiz.

Testuen izenburuek dioten moduan, aisialdia landu genuen tertulia dialogiko honen bitartez eta ondorio ezberdinak atera genituen ekintzatik. Alde batetik, Gizarte Langintzaren esparruan aisia tresna aberasgarri bat izan daitekeela adostu genuen, kolektibo ezberdinetaraino iristeko bidea izan baitaiteke hau eta baita parte-hartzea sustatzeko eta harremanak estutzeko bide bat ere bai. Bestalde, aisia denboran zehar asko aldatu dela ondorioztatu genuen, gaur egungo aisi-ereduak oso ezberdinak izanik antzinakoekin konparatuz. Aisia geroz eta indibidualistagoa eta kontsumistagoa da eta gainera, emakume eta gizonen artean bereizketa handiak nabarmentzen dira aisiaz ari garenean, aisi ereduak dagokionean eta batez ere, aisiari eskainitako denborari dagokionean.

Aberasgarria izan zen tertulia dialogikoan parte-hartzea, modu kritiko batean gai baten inguruko hausnarketa sakona burutu baikegun. Ander Egg-en aburuz, Formakuntza jardueren multzoan sartuko genuke ekintza hau, arrazoimena modu kritiko batean erabiltzeko aukera ematen duelako eta ezagutzak partekatzeko zein bereganatzeko balio duelako (Egg, 2000, 338.-346.or.).

c. Boluntariotzaren sustapena Bizipoza elkartearen eskutik

ASK-ren beste alderdi garrantzitsu bat, **boluntariotzaren sustapena** da eta ezezagunagoa genuen alderdi hau ezagutzeko aukera eduki genuen Bizipoza elkartearen eskutik jaso genuen hitzaldi bati esker. Ikasgelara etorri zen elkarte profesional bat, elkarte bera aurkezteaz gain, berak profesional moduan egiten zuen lana aurkeztera.



Hitzaldi hau jaso baino lehen, ez nuke modu automatiko batean boluntariotzaren sustapena ASK-ko ekintza gisa definituko, hein handi batean ASK-ren arloa gutxi ezagutzen nuelako baina baita boluntariotzaren sustapenari garrantzia gutxi ematen niolako.

Hitzaldiaren bitartez, ezaguna genuen Bizipoza ezagutzeko aukera eduki genuen eta elkarteren helburu eta ekintza espezifikoek informatu ginen. Hizlariak argi hitz egin zuen profesional baten lanaren garrantziaz, elkarreak aurrera eramaten duen ekintza ororen atzean lan profesional bat dagoela azpimarratuz. Esaterako, ekintzen helburuen formulazioan, garrantzia handiko lana daukate profesionalek, helburuen arabera ekintzak diseinatu behar baitira ondoren emaitzak lortu ahal izateko. Gainera, zubi-lana eta kontaktu-lana egiteko ere beharrezkoa da profesionalen lana, lan-sare sendo bat osatuz.

Hitzaldia amaitzean, boluntariotzaren inguruko hausnarketak ere partekatu genituen ikaskideon artean, lehenengo talde txikietan eta ondoren, handian. Orokorrean boluntariotza oso garrantzitsua denaren ideian ados agertu ginen kideok, ondorioztatuz herritik eta herriarentzat sortutako ekintza bat dela eta norbere garapenean zein komunitatearen garapenean laguntzen duen ekintza bat dela. Hala ere, batzuetan boluntarioen lana modu desegoki batean aurrera eramaten denaren ideiaz ere aritu ginen; instituzioak hainbat esparrutan boluntariotzaz aprobetxatzen direlako, boluntarioek baldintza eskasetan egin beharreko lanak burutzen dituztelako eta abar.

Esan beharra dago, ez dela lehenengo aldia Boluntariotzaz aritu garena graduan zehar, Komunitateko Gizarte Langintza deritzon ikasgaiari gaia landu izan genuelako bere garaian. Ikasgai honetan ikusi genuenez, norberaren probetxurako ezer lortzeko asmorik gabeko lan desinteresatua eta altruista da boluntariotza eta elkarren arteko laguntza komunitatearen ardatz garrantzitsu gisa garatu izan da denboran zehar. Gainera, boluntariotza gizartean parte hartzeko modu gisa ere definitu genuen ikasgaiari, nahiz eta baldintza zehatz batzuk bete behar dituen ekintzak boluntariotzazkoa izateko. Adibidez, libre izan behar duenaren ideia azpimarratu daiteke, parte-hartzaileak berak bere ekimenetik sortutako zerbait izanik eta kontzientzia baten gainean garaturik. Horrez gain, autonomia eta bidezkoa ere izan behar du ekintza horrek, giza eskubideetan oinarrituz ekintza oro (Berasaluze, Mendia eta Aranguren, 2017, 46.or.).

Azpimarratzekoa da, Espainiako Estatuan, boluntarioria XX.mendearen bigarren zatian garrantzia hartzen joan zen arren, azken hamarkadetan fenomenoak itzelezko berritasuna eduki duela, beraren erregulazio juridikoa dela medio. Estatu zein erkidegoan arau eta lege ezberdinak onartzen joan dira azken urteetan, kontzeptua geroz eta gehiago zehaztuz (kontzeptua, eskubideak, betebeharrak eta abar), hori dela eta, gaur egun jada ondorio juridikoak ere baditu boluntarioriazaren esparruak (Berasaluze, Mendia eta Aranguren, 2017, 46.or.).

Azkenik, Bizipoza elkarte eta boluntarioriazaren sustapena bera, ekintza sozialen multzoaren barrenean kokatuko litzateke, gizarte behar eta nahiei erantzuteko elkarte bat delako eta inongo irabazi asmorik gabe lan egiten duelako. Gainera, boluntarioriazaren sustatzeak ere, elkarte-bizitza erraztu egiten du eta komunitatetik zein komunitatearentzat egiten du lan. Hala ere, guk ikasgelan jaso genuen hitzaldi edo tailerra, formakuntza jardueren multzoan kokatzen da gehiago, formakuntza jasotzeaz gain, gure iritzi eta hausnarketa garatzeko tartea ere eduki genuelako, modu kritiko eta kontziente batean (Egg, 2000, 384.-388.or.).

d. Word kafea

Azkeneko ekintza bezala, nahiz eta ASK-a aurrera eramaten den zentro batera bisita buruan eduki, arrazoi ezberdinengatik hau ezeztatu eta gelan bertan **word kafe** bat inprobisatu genuen denon laguntzaz, beraz, ez zuen word kafeak berak dituen ezaugarri guztiak bete, baina ideiak partekatu eta gaiaren inguruan hausnartzeko aukera eduki genuen. Word kafea, taldeen antolaketarako metodologia bat da eta elkarriketa prozesu bat suposatzen du, zeinetan ikasleak elkarriketa baten bitartez eta galdera ezberdinak erabiliz, ikasketa prozesu bat zein hausnarketa bat edukitzea ahalbidetzen den (Correa, Gonzalez eta Serrano 2012, 7.or.).

Gure word kafea burutzeko, ASK-aren gaia hautatu genuen eta praktika guneekin lotu genuen aipatutako gai hau, praktika gune ezberdinetan zer nolako ikuspuntua dagoen ikusteko. Irakasleak akta jasotzaile bakoitzari galdera bat eman zion eta jasotzaile honek, talde bakoitzean galdera horren erantzun ezberdinak jaso zituen, hauek elkarte eta erakunde ezberdinetatik eratorritako erantzunak izanik. Lau talde sortu genituen eta beraz, lau galdera izan ziren erantzun beharrekoak; Lehenengo, ASKaren inguruko ideia orokorraz galde egin zen, elkarte bakoitzak nondik jotzen zuen ikusteko edota zein ideia zeukan jakiteko. Ondoren ASK-ko ekintza ezberdinez ere galdetu zen,

elkarteen arabera, oso ekintza ezberdinak ateraz. Ekintza hauetan gizarte langileek hartutako funtzio edo eginkizunak ere jaso ziren eta azkenik, ASK-ren inguruko hipotesi posibleez ere aritu ginen.

Orokorrean, ASK-ko ekintzak aisialdiarekin lotzen dira elkarteetan eta honen bitartez, bizi-kalitatea hobetzen dela ere elkarte gehienek aipatu izan dute, baita komunitatean integratzeko balio dutenaren ideia ere bai. Baina ideia deigarri eta eztabaidatuena, elkarteen aldetiko ezagutza eza izan zen, profesional batzuek ekintza hauek antolatu edota aurrera eraman arren, ez zituztelako ASK-ko ekintzat hartzen.

Ekintza motez aritzean, Ander Egg-en sailkapena erabili zen hauek multzokatu eta ordenatzeko asmoz eta mota askotako ekintzak irten ziren taldeetan, nahiz eta gehien errepikatu ziren ekintzak eskulanak edota tailerrak izan. Orokorrean elkarteetan, formakuntza jarduerak, jarduera artistiko ez profesionalak, jarduera ludikoak eta jarduera sozialak eramaten dira aurrera. Ekintzez gain, Gizarte Langilearen funtzioez ere aritu ginen, gehien errepikatu zen funtzioa, antolatzailearena izanik. Ekintzen aurretiko antolakuntza eta koordinazioaz arduratzen da oro har Gizarte Langilea, ekintzan bertan boluntarioak, hezitzaileak eta aisialdiko begiraleak arituz lanean. Beraz, Gizarte Langileen lana aurreko antolakuntza horretan zentratzen da; informazioa bildu eta ikertu, programa diseinatu, monitoreak bildu, baliabideak eskaini, informatu, zubi-lanak egin eta abar.

Amaitzeko, hipotesien txanda ere eduki genuen eta batez ere, ASK diziplinaren gaineko informazio falta azpimarratu zen, elkarte askok hau definitu ezinik edota honekin lan egiten dutela ez jakinik.

Word kafea bera, Ander Egg-en jardunbideen sailkapena kontuan hartuz gero, formakuntza jardueratzat hartu genezake, gai ezberdinen inguruan (kasu honetan, ASK-aren errealitatea elkarte edo erakunde ezberdinetan) talde txikietan batu eta hausnarketarako tartea eskaintzen baitzaio pertsonari, ikasketa prozesu batean ere barnebilduz pertsona hau (Egg, 2000, 384.-388.or.).

6- Gogoeta

Lana amaitzeko, honen egikaritzea prozesuan sortutako hausnarketa ezberdinak azaleratzea eta amaierako gogoeta orokor bat idaztea faltako litzateke, animazio soziokomunitarioaren inguruan, noski.

Egia da, duela denbora asko entzuna izan dela diziplina honen berri nire inguruan, baina ez orain ikusi eta ikasi dudan modu berean, ez hain modu konplexuan ezta hain haratago joanda. Orain arte, ez nuke, besteak beste, profesionalen lanaren garrantzia azpimarratuko ezta diziplina eratu bat dela onartuko, modu batean edo bestean, talde edo kolektibo bat animatzeko ekintzatzat definituko nuke ASK, honen helburua soilik pertsona edo talde bat alaitzea eta dibertitzea delarik.

Lan eta irakasgai honen bitartez ordea, ASK aipatutakoa baino gehiago dela esan beharra dago, eta baita gure gizartean denbora luzez lanean diharduen diziplina bat dela ere bai. Hezkuntza popularra gisako dinamiketatik kolektibo eta gizartearen kontzientzia eta sensibilizazioa lantzearen alde lan egin duen diziplina da aipatutakoa, beti gizartetik eta gizartearentzat lan egin izan duena. Animazioaren bidea hartuz, norberaren errealitatea ezagutu eta honetan esku-hartzeko edota honen gaineko erabakiak hartzeko tresnak ematen dizkigu ASK-ak, subjektua ahalduntzeko lan eginez eta irtenbideak bilatzeko modu alternatibo bat eskainiz. Ez al da modu positibo, eraginkor eta motibantea norbere arazo eta errealitatean esku-hartzeko?

Hau horrela izan dadin, beharrezkoa da profesionalen lana errekonozitu eta honen garrantziaz ohartzea, ez baita lan erraza hain ezberdinak izan daitezken pertsona eta hauen bizitzetan eragitea, ezta ere komunitatea parte-hartzera gonbidatzea. Profesionalen formakuntza oso garrantzitsua da esparru guztietan baina batez ere, pertsonekin eta haien bizitzekin lan egiten denean. Horregatik, ASK-aren atzean zer nolako lana eta jakintza dagoen ikusi beharra dago, eta batez ere, hau errekonozitu eta errespetatu. Honekin batera, diziplina bera ere ezagutzea eta honekin bat egitea garrantzitsua da, oro har, gizartearekin lan egiten duten profesionalek, askotan diziplina honek lagundu ahal baitu pertsona edota kolektibo ezberdinekin lanean ari garenean eta esku-hartze jakin bat aurrera eraman behar denean.

Horregatik, Gizarte Langintzako graduan garrantzitsua da horrelako irakasgaietan sakondu eta adibide praktikoen bitartez hau barneratzea, orain arteko ideia oker edo ez sakonduak alde batera utzi eta ASK sakon ezagutu eta honen etorkizunari bidea irekiz. Ziurra baita Gizarte Langile izango garen heinean eta gizarte honetako kide garen heinean, animazio ekintzaren bat antolatu edota hauetan parte-hartuko dugula, gure bizitzako errealitate zein egoera ezberdin eta anitzetan.

7- Bibliografía

- Agirre, Anaitze (2012). ¿Quién vive al lado? *Mugak*, 59, 52-53.
- Ander Egg, Ezequiel (2000). Metodología y práctica de la animación sociocultural. Madril:CCS.
- Berasaluze, Ainhoa, Mendiola, Irantzu & Aranguren, Ederne (2017). *Komunitateko Gizarte-Langintzaren oinarri teorikoak*. EHU-UPV.
- Caride, Jose Antonio (2005). La animación sociocultural y el desarrollo comunitario como educación social. *Revista de educación*, 336, 73-88.
- Correa, Marc & Gonzalez, Lucinio & Serrano, Ignacio (2012). Word Cafe como metodología para fomentar el aprendizaje. *Revista del CIDUI*, 1, 1-18.
- Froufe, Sindo eta Sanchez, Maria Angeles (1998). *Animación sociocultural. Nuevos enfoques*. Salamanca: Amarú.
- Gomez, Francisco (2018ko Abenduaren 28a). La animación sociocultural. *Manual Atalaya, apoyo a la gestión cultural*. Helbidea: <http://atalayagestioncultural.es/capitulo/animacion-sociocultural>
- Hernandez, Maria Jose (2006). Animación sociocultural desde una perspectiva participativa y comunitaria. La experiencia del proyecto Animabarríos. In Ventosa, Victor, *Perspectivas actuales de la ASC* (357.-369.or.). Madril:CCS.
- Illaro, Arrate (2018). Euskaraldia, ohiturak aldatzeko aktibazio ariketa. *Soziolinguistika aldizkaria*, II, 65-78.
- Tenor, Idoia (2017). Ekitea da kontua. Donostia: Bagera.
- Lopez, Fernando eta Leon, Lorena (2002). La animación sociocultural como contribución a la construcción de la identidad comunitaria. *Cuestiones pedagógicas: Revista de ciencias de la educación*, 16, 139-150.
- Nagore, Etxebarria (2015eko Azaroak 21). Aniztasunaren aberastasuna. *Berria egunkaria*.
- Programa Nacional Aprender Enseñando (2016). *Animación sociocultural*. Hezkuntza, Zientzia eta teknologia ministeritza.

Sarrate, Maria Luisa (koord.) (2002). *Programas de animación sociocultural*. UNED.

Ucar, Xavier (2012). *Dimensiones y valores de la animación sociocultural como acción o intervención socioeducativa*. Bartzelonako unibertsitate autonomoa.

Ventosa, Victor (2016). *Didáctica de la participación*. Madril: Narcea.